

Boluntariotza korporatiboa: odol-emateak. Berritasunak

Aldaketak odol-ateratzeen egunetan eta errekonozimendu-elkartze informalak: Denon Artean denetik (D.A.D.), inoiz baino kolaboratiboagoa

Kutxabankek, Kutxaren bitartez, **hainbat hamarkada daramatza** odol-ateratzeak sustatuz Garibain nahiz Ibaetan. Horretarako **Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen** laguntza jasotzen du, **bere ekipoak lantokietara eramaten baititu.**

Azken urteetan jardunaldien antolaketa Kutxa Fundazioaren ardura da, Gipuzkoa Solidarioaren bitartez: ekimenaren izaera solidarioa azpimarratzen da. Proposamenari berritasunak gaineratzen zaizkio. Hitzordua ezinbesteko bihurtzen da. Izan zaitez agente proaktiboa: zoaz eta gonbidatu zure adiskideak, gauza bera egin dezaten.

Aurten, odol-emateak **ostegunetan** egingo ditugu Garibain nahiz Ibaetan. lazko hitzorduetako batean jaso genuen proposamen baten ondorioz egin dugu aldaketa.

Joan den astean hasi ginen, maiatzaren 25ean Ibaetan eta orain, ekainaren 1ean Garibain, lehenengo sotoko jantoki zaharrean.

Beste berritasun bat zera izango da: DADeko hirugarren munduko batzordetik **ekonomikoki laguntzen dituzuen lankidetzaproiektuetakoren** batekin zuzeneko lotura duten pertsonak gonbidatuko ditugu, gurekin egon daitezen. Garrantzitsua da egindako ekarpenek GKEentzat askotan duten balio estrategikoa nabarmentzea. Nabarmendu hori beste ekitaldi solidario batean topaketa informal batekin egitea baino modu hobeagorik ez dago!

Urte hauetan, hainbat GKEk aurkeztu dituzten eta batzordeak ezarritako irizpide-taula baten arabera hautatu diren proiektu askori laguntza eman ahal izan diegu. Epe laburrean, ekarpen solidario boluntarioko linea hau sendotu egin beharko da. Bide batez, inplementatuko dugun lankidetzadynamika berrian parte hartzeko deialdi irekia noiz egiten dugun erne egon zaitezten eskatzen dizugu. Hasteko, lan-taldearen izena aldatuko dugu, eta beraz, *Hirugarren Mundurako Laguntza* izenaren ordezt hemendik aurrera zuk nola deituko zenukeen pentsatzen has zaitezke. Izen hori aspaldi jarri zitzaion. Orain egungo egoerara egokitu beharra dago.

Joan zen urtean, zuetariko askok egiten duzuen **ekarpenari** esker zortzi proiektu sustatu ziren. Zuen urrats solidarioak honako herrialde hauetara egiten du bidaia: Ekuador, El Salvador, India, Mozambike, Dominikar Errepublika, Peru, Tanzania eta Tibet.

Kasu honetan, proiektuak lekuan bertan zuzenean bizitzen ari diren pertsonen konpainiaz goatzeko luxua izango dugu. Proiektuen egoerari, helburuei, garatzeko zailtasunei, lorpenei eta abarri buruzko informazio zehatza eskainiko digute.

Lehen topaketan, Lorena Miguel Ibaetara joan zen **TAU Fundazioa** ordezkatzuz. Lagundutako proiektua komunitateko emakume eta gazteak genero-ikuspegitik

ahalduntzera dago bideratuta, esku-hartze komunitarioko sareak sortuz Dominikar Errepublikako El Carril udal-barrutian. Lorena handik etorri berria da, eta proiektuaren garapenari buruzko xehetasun guztiak eskaini ahal izango dizkigu.

Garibain, zuen jakin-nahia ase ahal izango duzue beste proiektu baten sustatzaileekin; Patricia Myriam Acosta eta Maixol Alcayaga, **Indarra, Dole, Kallpa, Asociación de la Mujer para la Cooperación Internacional** elkartekoak. Proiektua Peruko hezkuntza-komunitateetara dago bideratuta, ingurumen-hezkuntza jasangarriari buruzko hezkuntza-programa batekin. Lorpenak harrigarriak izan dira. Haiekin hitz egiteko eta nahi duzuen informazio guztia biltzeko aukera izango duzue.

Anima zaitezte, eta parte hartu! Bereziki **gazteenak** gonbidatzen ditugu ekimen honetan parte hartzera: odola emateak biziak salbatzen ditu.

Data eta ordutegia honako hau da:

- **Garibai**

- Eguna: **ekainaren 1a**, osteguna, 9:30etik 13:00etara
- Lekua: **1go Sotoko jantoki zaharrean**

Jardunaldia modu egokian antolatzeko komeni zaigu odola emateko prest daudenen kopurua aldez aurretik jakitea, eta beraz **asistentzia berresteko** eskatzen dizuegu.

Izena emateko: gipuzkoasolidarioa@kutxa.eus / 943 00 17 02

Gogoan izan odol-emate masiborako **deialdi bat** egin dela: biltegitratuta dauden funtsak murriztu egin dira. Odola behar dugu udako ezustekoei aurre egin ahal izateko.

Eskerrik asko zuen laguntzarengatik. Ondo segi.

